LANBIDEEN DOMINO ERRALDOIA: LORENTXOREN GUTUNA

Kaixo, kaixo!

Zer moduz? Lanean ari zarete fin-fin, ezta?

Egunak etorri, egunak joan, eta zuek gero eta handiago. Zenbat neurtzen duzue? Ipini denok ilaran hormaren kontra eta marratxoa egin altuena zein den ikusteko. Ondo jan behar da handi egiteko, e?

Zuek handi eta Beñat eta Irati ere handi-handi. Eta aurrekoan Beñati galdera bat egin nion:
—Beñat, zer izan nahi duzu handitan?
Badakizue zer erantzun zidan?:
— Suhiltzaile! Ez, pirata! Ez, mediku! Edo ez, hobeto maisu!

Berak ere ez daki zer izan nahi duen, eta zuek badakizue? Zein lanbide dute zuen gurasoek? Eta zuen lagunek zein lan egin nahi dute ?

Elena, Beñaten eta Iratiren ama, medikua da eta Patxik, aitak, garbigailuak egiten ditu.

Nik jolas bat bidali dizuet: domino erraldoi bat!

Bertan, Beñatek handia denean zer izan nahi duen ikusiko duzue!!




IDAZKARIA


MEKANIKARIA



SUHILTZAILEA



IRAKASLEA


MARGOLARIA


MEDIKUA



KAZETARIA



ARGAZKILARIA


ABESLARIA


SUKALDARIA



ERIZAINA



ARKITEKTOA


IGELTSEROA


BASERRITARRA


ETXEKOANDREA


LANGILEA














































































